

Birzikloop – Gure negozioak izango dituen kostuak

1. Lokalaren alokairua eta mantentzea

Gure zentro fisikoak martxan egoteko alokairua ordaindu behar da. Horrez gain, argi-faktura, ura, Internet, garbiketa eta espazioa konpontzeko edo egokitzeko gastuak ere badaude. Halaber, altzariak, mahaia, apalak eta harrerako gunea prestatzea ere kostua da.

2. Langileen soldatak

Proiektua aurrera eramateko langile kualifikatuak behar ditugu:

- harreraren egongo diren pertsonak,
- konponketak egingo dituzten teknikariak,
- aplikazioa eta weba zainduko dituzten informatikariak. Langileen soldatak eta gizarte-segurantzaren ordaintzea da gasturik handienetakoa.

3. Aplikazioa eta webgunea

Plataforma digitala egiteak kostu handia du: diseinuak, programazioak eta sistemaren segurtasunak. Gainera, urtero mantentze-lanak, eguneraketak, erroreak konpontzea eta zerbitzaria ordaindu behar dira. Hau ezinbestekoa da proiektua ondo funtziona dadin.

4. Tresnak eta materialak

Gauzak konpontzeko behar den guztia erosi behar da: tresnak, torlojuak, kableak, oihalak, produktuen ordezkoko piezak eta abar. Material hauek etengabe berritu behar dira, eta horrek gastu jarraitua sortzen du.

5. Publizitatea eta komunikazioa

Birzikloop jendearek ezagutarazteko sare sozialetan iragarkiak egin behar dira, kartelak sortu eta auzoetan jarri, eta batzuetan ekitaldiak edo tailerrak antolatu. Horrek diseinu-lana, inprimaketa eta komunikazio-zerbitzu profesionalak ordaintzea dakar.